

Eskuineko karta jokatzeko

ALEMANIAKO HAUTESKUNDE FEDERALAK PRESTATZEN. Sozialisten eta berdeen gobernua agintetik kentzeko bi aukeretatik hautagai kontserbadoreena aukeratu du CDU-CSU batasun kristau-demokratak

Martin Beck | BERLIN

Nola aukeratzen dira kantzilergaiak? CDU Batasun Kristau-Demokrata alderdi kontserbado-rearentzat eta Bavariako CSU Batasun Sozial Kristaua alderdi bikiarentzat galdera katramilatsua izan da azken hilabeteotan. Ika-mika izan da afera honen haritik alderdian zein hedabideetan hainbat hilabetez. Azkenean, CDUren presidente Angela Merkelek amore eman behar izan zuen joan zen ostiralean.

Bi ondorio atera dira aurrez aurrekotik: alde batetik, Batasunak ez duela oraindik 1998. urteko «botere galera» asimilatu, eta ahuldurik dago harrezkerotik, iritzi guztien arabera. Bestalde, Bavariako lehen ministro eta CSUko presidente Edmund Stoiber kantzilergai gisa proposatzeko eta azkenean izendatzeko erakutsitako erabakitasunak Alemaniako gizartearen eskuinerantzko joera nabarmentzen duela, berdeen eta sozialisten gobernu erreformazalearen azalaren azpian.

Botere lehia

Hautagaien afera botere lehia bihurtu zen batasun demokristauaren baitan. Merkel eta Stoiber irailean egitekoak diren hauteskunde federaletarako hautagai nagusi izateko aurkeztu ziren. CSU eta CDU alderdietako presidenteak konponbide batera heltzeko itxaropen inozoa zapuztu egin zen horren bidez. CDU alderdiko buruzagien presio ikaragarriak hautagaitzari uko egitera behartu zuen alderdian gero eta sosten-gutxiago zuen Merkel.

CDUren presidente kargua hartu zuen 1999aren bukaeran Merkelek, eta, alderdikide askorentzat, irtenbiderik gabeko egoeran alderdiaren salbatzailea behar zuen izan. Emakume, protestante eta alderdian ongi finkaturiko botererik ez zuen Ekialdeko Alemaniako herritargisa, hasiera berria irudikatzen zuen Merkelek diru eskandaluz jositako CDUrentzat. Halere, ez zen alderdiko buruzagi indartsu bihurtzera heldu. Friedrich Merz legebiltzar taldeko buruaren aurrean amore eman behar izan zuen hainbat aldiz. Merkelen posizioa ahuldu zuten men egiteok. Azkenean, CDUko presidentea zein CDU-CSU batasunaren legebiltzar taldea garaituak izan ziren, Gerhard Schroeder kantzilerraren jokaldi trebatek zerga erreformaren inguru-



STEPHANIE PILICK / EPA

Angela Merkel eta Edmund Stoiber, CDU-CSUk Dresdener abenduaren hasieran eginiko batzarrean.

BOZETARAKO GAIK

Gobernuaren ahulezian indar

Hainbat hilabeteetan lehen aldiz estatistikek CDU-CSU batasuna SPD Alderdi Sozial Demokratarekin parekatu arren, ezin da esan demokristauek gorantzako joera nabarmena dutela. Batasunaren itxurazko sendotasunak Gobernuaren ahulezian du indar. Legebiltzardiaren bukaerarako langabezia 3,5 milioira murriztuko zuela esanez kantzilerrak eginiko hauteskunde hitzaldia Schroederren aurka itzuli da, ekonomiaren egoera oker-

tzen ari dela-eta langabe kopurua igotzen ari dela ikusita. Dena den, ustekabeko erabakien bidez, lema zuzentzerik baduela frogatu izan du askotan Schroederrek. Oraingo honetan ere baliteke arrakasta izatea. Lan merkatuaren inguruko politika aldatzeko eta inbertsio ofizialak indartzeko neurriak iragarri ditu jadanik kantzilerrak.

Batasun kontserbadoreak, bere ustez, ekonomia eta gizarte politikaren eremuetan ditu bere aukerak. Merkelen aldekoa izan edo Stoiberrena izan, denak gai horiek hauteskunde kanpainako muina izan behar dutela diote. Stoiber da esparru horretan ere hautagairik hoberena. Bera le-

hen ministrotzat duen lurraldeak langabe gutxien, hazkuntza maila handiena eta teknologia aurreratuko enpresa multzo handiena duela ibil daiteke etxez etxe esaten. Aldi berean, kontserbadurismo tradizionala irudikatzen du CSUko gizonak. Bozetan arrakasta izanez gero sozialistek eta berdeek eginiko hainbat «erreforma» (indar nuklearra uztea, bikote homosexualen berdintasuna) atzera botako dituela esan du jadanik. Horrez gain, Gobernuaren etorkinen inguruan prestatzen ari den legea baztertzeko asmoa agertu du. Kontserbadoreek atzerritarren aurkako kanpaina egingo duten beldurra zabaldu da Alemanian.

ruko Legebiltzarreko fronte kontserbadorea haustea lortu zuenean. Batasun kontserbado-reak gobernatutako bi lander bere politikarekin bat etortzea lortu zuen sozialisten eta berdeen gobernuak ezarritako kantzilerrak.

Alemaniako Armadak Mazedonian esku hartzearen afera eta etorkinen inguruko legeak CDUren zuzendaritzak izandako jokabidea ez ziren izan kontsentzagarriak. Alderdiko eta

MERKELEN ESTRATEGIA

Politikan «zentroan» dagoen hauteslea zuen helburu

STOIBER HAUTAGAIA

Ez du beldurrik eskuinekoak diren adierazpenak egiteko

legebiltzar taldeko hainbat buruk adierazpen kontraesankorrak egin zituzten. Herritarrek sarri galdetzen zioten beren buruei alderdiaren jarra zein ote zen.

Eskuina garaile

«Schroederren aurka aukera gehien duena izan behar du hautagai», esan zuen duela hainbat aste Merkelek. Joan zen ostiralean bere adierazpenak hitzez hitz hartu zituen:

Stoiberrek aukera gehiago ziotuen Schroederren aurka. Bi hautagaien arteko hautuak demokristauen hauteskunde estrategia ere hautsi zuen. Merkelen strategiak politikan «zentroan» dagoen hauteslea zuen helburu. Stoiber, berriz, Batasunaren hautesleak hobekien mobiliza ditzakeen hautagaia da. Kontserbadorea da eta ez du beldurrik batez ere eskuinekoak diren adierazpenak egiteko orduan.